Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

998

AGINDUA, 2011ko urtarrilaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bitartez, 2011ko ekitaldirako deialdia egiten da mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak emateko. Laguntza horiek Mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak arautzeko azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuan xedatu ziren.

Azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuak, abenduaren 23ko 336/2003 Dekretuak aldarazia, mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak arautzen ditu.

8.3 artikuluan finkatzen du Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Aginduaren bitartez, urtero, bertan arautzen diren laguntzen deialdia egingo dela, eta eskabideak aurkezteko epea irekiko dela. Halaber, aurrekontu ekitaldi bakoitzaren barruan emango diren laguntzen bolumen osoa ezagutaraziko dela finkatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Antolatzen duten Printzipioen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen bitartez onetsia, ezarri egiten du 49.5 artikuluan ekitaldi ekonomiko bakoitzean Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak indarrean jartzen direnean eguneratu, berrikusi, edo, hala badagokio, ezarri egingo direla programen diru-laguntzak emateko arauak eta kasuan kasuko deialdia egingo dela bere garaian izaera mugagabez arautu zirenentzat. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legeak aukera ematen du urte honi dagokion laguntza deialdia egiteko.

Horien arabera

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak arautzen dituen azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuan –abenduaren 23ko 336/2003 Dekretuak aldarazia– finkatu diren laguntzak eskatzeko agiria aurkezteko epea,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

998

ORDEN de 18 de enero de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2011, de las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña previstas en el Decreto 242/2000, de 28 de noviembre, por el que se regulan las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña.

El Decreto 242/2000, de 28 de noviembre, modificado por el Decreto 336/2003, de 23 de diciembre, regula las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña.

En su artículo 8.3 establece que anualmente, mediante Orden de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca se efectuará la convocatoria de las ayudas en él reguladas y se abrirán los plazos de presentación de solicitudes y que, asimismo, se dará a conocer el volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario.

El Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece en su artículo 49.5 que, una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o, en su caso, a establecer las normas reguladoras de la concesión de las subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquéllas que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida. En este sentido, la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2011 permite realizar la convocatoria de las ayudas correspondientes a este año.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Plazo de presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes, para el año 2011, de las ayudas establecidas en Decreto 242/2000, de 28 de noviembre, modificado por el Decreto 336/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan las ayudas a proyectos piloto de acción rural

2011. urtean, hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

2.– Eskabideak Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariari zuzenduko zaizkio, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean aurkeztuz. Bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako bideetatik edozein erabili beharko da. Bi kasuetatik edozeinetan, abenduaren 23ko 336/2003 Dekretuak aldarazitako 242/2000 Dekretuko 8.2 artikuluan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera.

Bigarrena.– Diru-laguntzen zenbateko osoa.

1.– Agindu honen ondotik emango diren laguntzen zenbateko osoa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik etorriko da, eta ez da 416.434 euro baino gehiagokoa izango, indarreko legeriari jarraiki aurrekontuak aldatzea onesten bada eguneratzeari utzi gabe.

2.– Kasu horretan, aldaketa horiek onestetik eratorritako aurrekontu esleipena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpenaren ondotik.

Hirugarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jarri ahalko dute Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aurrean. Horretarako hilabeteko epea edukiko da argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean. Kasu horretan, epea bi hilabetekoa izango da argitaratu eta biharamunetik hasita.

Laugarrena.– Indarrean jartzea.

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 18a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

en zonas de agricultura de montaña será de un mes, desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Las solicitudes se dirigirán al Director de Desarrollo Rural y Litoral presentándose en el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y a ellas se habrá de acompañar la documentación prevista en el artículo 8.2 del Decreto 242/2000, modificado por el Decreto 336/2003, de 23 de diciembre.

Segundo.– Volumen total de las ayudas.

1.– El volumen total de las ayudas a conceder en virtud de la presente Orden procederá de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y no superará la cantidad de 416.434 euros, sin perjuicio de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

2.– En tal caso, la consignación presupuestaria que resulte de la aprobación de dichas modificaciones se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural.

Tercero.– Recursos.

Contra la presente Orden podrán las personas interesadas interponer recurso de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación.

Cuarto.– Efectos.

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de enero de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.